

MUSIKA HERRI ERAKUNDEETAN

Euskal Herriko danbolinteroak eta Catalunyaako minestrers-ak Oiartzungo Herri Musikaren Txokoa bildu ziren musikari hauek herri erakundeetan izan dituzten funtzio eta betebeharrak aztertzeraz

Lehenengo azaroan Oiartzunen Herri Musikaren 8. Jardunaldiak ospatu ziren. Bertan hitzaldiak, tailerrak eta musika emanaldiak izan ziren. Urtez urte gai ezberdin baten inguruan antolatzen dira ekitaldi hauek eta pasa den azaroan jorratutako gaiari eman zitzaion izenburua *Erakundeetako danbolintero ofiziala* izan zen.

Jardunaldiei hasiera azaroko azken larunbatean, goizeko hamarrak aldera eman zitzairen. Ordurako antolatuta zegoen mintegira adin ezberdinetako hogeita hamar bat pertsona bildu ziren.

Lehenengo hitzaldia Carmen Rodríguez Suso andreak eman zuen. *El txistu entre el protocolo oficial y la fiesta popular* zuen izenburua berak aurkeztutako lanak eta urteetan zehar txistulariaren ofizioak izan duen bilakaera azaldu zuen.



Carmen Rodríguez Suso. HMT

Mintegiko hurrengo hizlaria Mikel Aramburu jauna izan zen

El txistulari municipal: proceso y resultado hitzaldiarekin. Aurreko hizlariak hasitako bidea berak Nafarroan topatu duen dokumentazioko datuekin ilustratu zuen.

Goizeko saioa bukatzeko Xavier Orriols jaunak Catalunya erabiltzen diren flabiol eta danborrei buruzko hitz egin zuen soinu-tresna hauek Catalunya noiztik dauden, izan dituzten aldaketak eta horien zergati- etako batzuk azalduz. Berekin diapositibez gain flabiol ugari ekarri zuen entzuleek uneoro zein soinu-tresnaz ari zen ikus eta jakin zezaten.



Mahai-inguruan. HMT

Mintegiak jarraipena Oiartzun erdialdean kokatuta dagoen Ibergain Kultur eta Kirol Elkartean izan zen bazkarian izan zuen. Arratsaldeko lanari aurre egiteko nahiko indar bildu eta jardunaldiek On Manuel Lekuona kultur etxean jarraitu zuten Jose Ignazio Ansorena jaunak eta Xavier Orriols jaunak zuzendutako Minestrers de la Vila Nova-k emandako taillerrekin.

Musikariek eguneko azken lana Oiartzungo udaletxeko areto nagusian izan zuten.

Bertan, lehenengo Errenteriako Udal Txistulari Taldeak taularatu zuen bere errepertorioa eta haiak bukatutakoan Minestrers de la Vila Nova taldearen txanda izan zen. Kontzertura hurbildu zen jendea gustura geratu zen eta tartean izan zen etxera joan ondoren kontzertuko musikarien diskoa entzuten aritu zenik ere. Musikariek beraiek afaria izan zuten Ibergain elkartean.

Igande goizari hasiera emateko txistulariek kale-buelta egin zuten Oiartzungo plazaren inguruan eta ondoren On Manuel Lekuona kultur etxean sartu ziren danbolinteroaren betebeharrak eta ofizioa zein egoeratan dagoen eta zein etorkizun duen eztabaidatzera.

Eguerdi aldean mahai ingurua bukatu eta indarberritzeko pintxo bat hartu zuten Girizia elkartean gero Oiartzungo kaleak bere doinuekin alaitu zituzten Catalunyaetik etorritako Minestrers de la Vila Nova taldekoek.

Plazako buelta osatutakoan guztiak elkartu eta Girizia elkartera bueltatu ziren bazkaldu eta jardunaldiei bukaera ematera.



Els Minestrers de la Vila Nova Oiartzungo kaleetan. HMT

KONTZERTUAK HM Txokoan

Neguko kontzertua

2010eko urtarrilaren 30ean - 18,30tan - HM Txokoan

BIZKAIKO DULTZAINEROAK

Talde hau osatzen duten musikariak *Bizkaiko* hainbat dantza taldetatik etorritakoak dira. Gehienek txistua joaz hasi zuten beraien ibilbide musikala eta dantza taldeetan zegoen dultzainero premiak eraman zituen gaita edo dultzaina ikastera, gero Larrain-dantza edo Cortes-eko dantzak jotzeko adibidez. Dultzainaren soinua era ezberdineko danbor eta perkusioekin batera esku-soinuekin laguntzen dute.

Talde honetan parte hartzen duten batzuek Juan Bilbao, Patxi Bilbao edo Juan Aiesta beza-lako dultzainero bizkaitarren azken aroa ezagutu zuten eta horrexek bultzatzen zituen Bizkaiko dultzaina desagertzen ez uzteko lana egitera.

Lan horren barruan, 1994an *La dultzaina en Bizkaia-Bizkaiko dultzaina* izeneko liburua argitaratu zuten. Bertan Bizkaiko hiru dultzainerok jotzen zituzten doinuen transkribapenak biltzen dira taldekoek lehendik grabatu edo jaso zuten beste doinuren batez gain. Hiru dultzainero hauek Juan Bilbao, aurrekoaren lehengusua zen Patxi Bilbao eta Juan Aiesta ziren. Hiru hauek doinuak belarriz ikasten zituzten eta moda berriak inposatzen zituzten erritmo berrietara egokitzeko gaitasun nabarmena zuten. Kontaezinezko erro-

merietan jotzen zuten banda eta jazbanekin etengabeko lehian. Beraien lanbidean pare bat lagun izaten zituzten alboan: danbor-jole bat edo pandero-jole bat edo beste eta kobratzaile bat. Azken hau dantzan aritu ziren gazteei kobratzeaz arduratzen zen eta dultzaineroa bera arduratzen zen *Kobreik!!* oiukatuz kobratzaileari dantza ordaindu ez zuen gaztea zein zen agertzeaz azken hau kobratzera joan zedin.

EGITARAUA

Baserritarra. Fandango

Patxi Bilbao erreper.

Juan Aiesta erreper.

Jota
Arin-arin
Pasacalles

Jota
Arin-arin
Pasacalles
Pasodoble

Alberto Artal erreper.

Juan Bilbao erreper.

Pasodoble
Iborri erreper.

Jota
Arin-arin
Pasacalles

Jota
Arin-arin
Pasacalles

Fermín Ayo erreper.

Juan Aiesta erreper.

Jota

Pasodoble

Juan Aiesta erreper.

Fermín Ayo erreper.

Pasodoble

Jota

Pasacalles



Dultzaina Anton Bretos
Iñaki Zunzunegi
Iñaki Zorrilla
Pedro Kortabitarte
Alberto Artal

Akordeoa Aitor Serrano
Izaskun Legarreta
Danborra Jon Ander Madariaga
Panderoa Aitor Gorostiza
Perkusioa Mikel Maguregi

ANELÍS GONZÁLEZ, PATRICIA DEL VALLE ETA MARTA ELOLA

Asturiasko pandereterak

Badute izena, Anelís González, Patricia del Valle eta Marta Elola dira, baina ez dute talderik nahiz eta batzuetako partaide diren. Hemen agertu dira bakar bakarrik, gure perkusioekin, lurralde asturiarrean emakumeek emandako musika herrikoi pixka bat azaltzeko asmoz. Beraien artean, eta horrek edozein herritara elkar-tzen ditu, emakumea izan zen (eta oraindik hala dela uste dute) neurri handi batean komuni-tatearen ahotsa. Askotan jartzen zion hitzari musika eta hortik kantatzera pasa. Emakumeak beti zeuden kantari: erre-kara joan eta kantari, abereak zaindu eta kantari, haurra magalean eta kantari, arimaren alde ari eta kantari. Ezkontza batek sortzen zuen pozetik bakardadeak sortutako atsekabera, neguko hila-bete ilunetako harilkatzeko antolatzen zituzten bilere-tatik udako festa zorame-nera, emakumeak kanta bat sortzen zuen, edo dantza bat antolatzen zuen, edo panderoa hartu eta dantzaldi bat hasten zuen. Baina musika kultura ugari horren gaindi, gaitak izan duen loraldiak azken urteetan Asturiasko perkusio elementuek merezi duten arreta ez izatea ekarri du nahiz eta azkenaldian egoera hori aldatzen ari den.

Emanaldi honetan aurkeztuko diren pieza guztiek bere indarra pasa den mendeko hiruro-

geiko hamarkada arte mantendu zuten. Une har-tan usadiozko kontuekin haustura gertatu zen zergatia baserritar inguruaren urbanizazioan eta Asturiasen gertatutako eraldaketa ekonomiko eta kulturaletan bilatu behar delarik.

Saioan zehar erdialdean, sortaldean eta sar-taldean barrena ibilaldia egiten saiatuko dira hor-retarako doinu aberats eta biziak pandereta,



pandero, payecha, pandorio eta danborrarekin emanaz: dantzak, erromantzeak, sehaska kan-tak, eliz kantak, valsa, pasodoblea eta tangoa bezala helduta dantzatzeko doinuak; baina batez ere "a lo pesau" eta "a lo ligeru" dantza sueltoak laguntzeko jota eta muñeirak.

Neguko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa: 15 euro.

TIRIKITRAUKI
MUSIKA DENDA

esku-soinuak
ZERO SETTE
Lasarte-Oria
Tel/Fax 943 372 617
www.tirikitrauki.com

kontzertu honen
laguntzaileak:

AUZOKALTE
ERGOIENGO AUZO
ELKARTEA

TXALAPARTA: LIBURUA, CD eta DVD

Herri Musikaren Txokoak argitaratzen duen *HM bilduman* hirugarrena izan zen *Txalaparta eta beste aldaera zaharrak* liburuak hasitako bidea jarraituz, lehengo abenduan txalapartari buruzko lan berri bat aurkeztu zuen Editorial Nerea argitale-txeak.

Lan mardul honetako testua Juan Mari Beltranek idatzi du. Gaur egun osasun ona duen soinu-tresna honek izan dituen gorabeherak azaltzearekin batera txalapartari eta txalapartariei buruz esandakoak ere bildu ditu. Euskaraz eta gazteleraz dagoen testua garai ezberdinetako argazkiekin osatuta dago. Liburuak berekin, CD bat eta DVD bat ere baditu. CD-a Juan Mari Beltran eta berekin aritzen diren txalapartariak prestatu dute, DVD-a berriz Kepa Ugartek egin du



Liburuaren azala. HMT

eta bertan txalaparta nola jotzen den ikusteaz gain hainbat txalapartari egindako elkarrizketekin liburu osatzen da.




Oiartzungo HM Eskolako dultzaineroak. HMT

2009ko HM ARGITARALPENAK

Pasa den urtea oparoa izan da argitaratzen Herri Musikaren Txokoan. Lana gogotik egin ondoren urtearen buruan HM bildumaren barruan bi liburu, lau DVD eta CD bat argitaratzea lortu da.

Argitaratutako bi liburuetan lehena *Herri Musikaren 2. eta 3. Jardunaldiak* izan zen eta bertan 2003 eta 2004 urteetan ospatu ziren jardunaldietan bildutako testu eta argazkiak sartu dira. Bigarren liburuak *Eugenio Etxebarria Albokaria* izena du eta Dimako albokariaren biografia testu eta DVDan egin zuten Manu Gojenola eta Juan Mari Beltranek.

Ikus-entzunezko atalari dagokionez, 2008an Hernanin ospatu zen *22. Txalaparta Festako* joaldiekin CD bat eta DVD bat argitaratu dira.



DVDekin jarraituz, *Herri Musikaren 3. Jardunaldietan* herri musikak eta herri dantzak hezkuntza sarean duten tokiari buruz egin ziren ekintzetan bildutako irudiekin bat egin da eta beste bat *Herri Musikaren 7. Jardunaldietan* kanpai eta ezkilan joaldietan bildu ziren irudiekin.

Bukatzeko, *Hernaniko 5. Txistulari Jaialdiaren* barruan egin zen *5. Txistulari Gazteen Lehiaketa* beste DVD batean argitaratu da.

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabetetan: bisitari kopurua: 1.459

Antolatutako taldeak: 53

Bisitari kopurua urtarrilerarte: 23.827

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabetetan: 13.836

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org

